







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Energia elektrikoa

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %4 egin zuen gora maiatzean, 2017. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %9,6 igo zen, zerbitzuetan %1,4 eta etxekoan, berriz, %6,4 jaitsi zen.

2018ko maiatzera arte metatutako kontsumoak %1,9 egin zuen gora, 2017. urteko epe berean izandakoarekin alderatuta; etxeko sektorean %1,7 igo zen, zerbitzu arloan %1,7 ere eta industrian %0,7.

Maiatzera arte, industrian gora egin duten sektoreak, besteak beste, hauek izan dira: kautxuzko eratorriak (+%7,3), kimika (+%5,9), zementua (+%3,7) eta beiragintza (+%4,3); behera egin dutenak, aldiz, ontzizigintza (-%52,1), papera eta kartoia (-%5,7). Siderurgia eta galdagintza %1,1 igo da.

Gas naturala

Maiatzean, gas naturalaren guztizko kontsumoak %6,2 egin zuen gora, 2017ko maiatzean izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %32,7 jaitsi zen eta gainerako sektoreena, berriz, %13,4 igo zen.

Maiatzera arte metatutako kontsumoak %3 egin zuen gora, aurreko epealdiaren aldean, (-%43,1 CCTT-n eta +%8,9 gainerako sektoreetan).







Erregaiak garraioan

Apirilean, garraioan erregaien kontsumoak %14,7 egin zuen gora, 2017. urteko hil berean izandakoarekin alderatuta.

Urteko lehen 4 hilabeteen metatutako kontsumoa %9,4 igo zen, 2017koarekin erkatuta. Hala, gasolinaren kontsumoak %4,2 egin zuen gora eta A gasolioarenak %9,9.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera








EAEtik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan
 Maiatzean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 99,2 milioi kupel izan zen (2017ko maiatzean izandakoaren aldean, %1 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %0,9 egin zuen behera kontsumoak, 14,1 Mbpd kantitatara iritsiz; Txinan %3,4 igo zen, eta 13,5 Mbpd kontsumituz heldu zen eta AEBetan %1 igo zen, eta 20,2 Mbpd kopuruan kokatu zen.

Energiaren kontsumoa Espainian
 Espainian, gas naturalaren kontsumoak %11,4 egin zuen gora maiatzean, 2017ko hil horretan izandakoarekin alderatuta. 2018ko maiatzerara arte metatutako kontsumoak %7,4 egin zuen gora. 2017. urteko aldi berean izandakoarekin alderatuta. Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, behera egin zuen maiatzean, %1,1, 2017ko maiatzean izandakoaren aldean. 2018. urtean metatutako kontsumoa %1,8 igo zen, 2017an izandakoarekin alderatuta. Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %4,2 egin zuen gora apirilean, 2017ko hil berean izandakoarekin konparatuta; gasolinaren kontsumoa %0,9 igo zen eta gasolioena, aldiz, %4,9 jaitsi zen. 2018ko lehen lau hilabeteetan metatutako kontsumoak %3,3 egin zuen gora, aurreko epealdi beraren aldean, (%3 igo zen gasolinena eta %3,4 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoaren kontsumoak %3,1 egin zuen gora apirilean, eta 2018ko lehen lau hilabeteetan izandako kontsumo metatua %5,7 igo zen, aurreko epealdi berarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta EIAren datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 76,6\$ (64,9 €) izan zen maiatzean. Urtebetean prezioak %50,7 egin zuen gora (%41,1 eurotan).

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 54,9 €/MWh izan zen maiatzean; duela urtebete zegoenaren aldean, %16,6 egin zuen behera.

Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 18 €/MWh izan zen apirilean, eta %8,7 igo zen, 2017ko hil berean izandakoarekin erkatuta. Maiatzean, EGIX-en batez besteko prezioa 19,2 €/MWh izan zen (2017ko maiatzean izandakoarekin alderatuta, %18,6 igo zen). Spot merkatuetan, maiatzean, Henry Hub-en prezioa 9,6 €/MWh izatera iritsi zen eta Japonian 22,8 €/MWh, (2017ko hil horretan izandakoaren aldean, -%11,1 eta +%29,7 egin zuten behera eta gora, hurrenez hurren).

Erregaien prezioa

EAEn, maiatzean, gasolioaren prezioa 1,21 €/l izan zen (urtebetean %13 igo da), eta gasolinarena 1,3 €/l (urtebetean %9,3 egin du gora).

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 14,7 €/t izan zen maiatzean, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %216,3 igo da.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, Powernext, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.